



Louisa GOULIAMAKI | AFP



IKUSMIRA

TURISMOA ERREFUXIATUEN AZTARNEN ATZETIK, LESBOSEN

la-ia atzeman ere ez dira egiten itsasertzean sakabana-
natuta dauden salbamendu jakek osatzen duten men-
dixkaren artean, baina han daude. Turista oro har kux-
kuxeroa ei da eta hiru behintzat iritsi dira bertara ere,
Lesboseko irlako bazter honetara, inork deitu ez badie
ere. Zer ikustera, baina? Onar dezagun estetikoki ikus-

garria dela aurrean dugun irudia. Baina, etikoki? Zertara etorri dira, errefuxiatuen sufrimendua-
ren aztarnen atzetik? Salbamendu jaka bakoitzak drama bat ezkututzen duenez, morboaren bila
agian? Baliteke. Hala ere, litekeena ere bada turistak erantzun baten bila iritsi izana. Izan ere,
Mediterraneoko urek suntsitutako txalupen hondakinek berebiziko galdera egiten digute turista
aberats europar garen orori. Hobe al da besteek bizi duten miseria sumatzea sikiera, edota ho-
be genuke ez ikusiarena egitea?, Kariben gustuko ditugun hotel erraldoietan bezala, igerilekuan
blai, gintonika eskuan eta otarraina ahoan... Horra hor galdera. Dabid LAZKANAITURBURU